

Erreferentzia kodea: ES/NA/AACF/2/029

Izenburua: INFORMAZIO, TURISMO ETA HERRI HEZIKETAKO PROBINTZIA BATZORDEA

Datak: 1943-1981

Deskribapen maila: Funtsa

Bolumena eta euskarria: 6 instalazio unitate

Sortzailea: INFORMAZIO, TURISMO ETA HERRI HEZIKETAKO PROBINTZIA BATZORDEA

Erakundearen historia:

Nafarroan, lehenik eta behin, Herri Heziketako Probintzia Ordezkaritza bat dago; bertan, 1943-1966 bitartean baimendutako aldizkarien erregistro liburu bat baino ez dago (Probintzia Batzordean sartuta da).

1941ean, Herri Hezkuntzako Idazkariordetza sortu zen Mugimenduaren Idazkaritza Nagusian, eginkizun hauetan ardaztua: prentsa, edizio, zinematografia, zentsura, eta abar.

1945eko uztailaren 27ko Lege Dekretuaren bidez —Hezkuntza Nazionaleko Ministerioan Herri Hezkuntzako Idazkariordetza antolatzen zuena—, Hezkuntza Nazionaleko Ministerioaren mende gelditu ziren Herri Hezkuntzako Idazkariordetza horri 1941eko maiatzaren 20ko Legearen bidez eskualdatutako prentsa eta propaganda arloko zerbitzu eta erakundeak, eta Herri Hezkuntzako Idazkariordetza eratu zuten.

1951n, Informazio eta Turismo Ministerioa sortu zen, oinarri hartuta Idazkariordetza horren mendeko zerbitzuak eta Turismo Zuzendaritza Nagusian sartuta zeuden beste zenbait, Gobernazio Ministeriotik bereizitakoak.

1963ko otsailaren 28ko Aginduaren bidez, Informazio, Turismo eta Herri Hezkuntzako Probintzia Batzordeak (CITE) sortu ziren (Batzorde Nagusia aitzineko urtean eratua zegoen, eta eginkizun hauek zituen, besteak beste: informazio hedabideak garatzea, turismoa sustatzea eta kultura zabalkundea bultzatzea).

Batzorde horiek egitura hau zuten: Probintziako Osoko Batzorde bat, Probintziako Batzorde Ordezkaritza bat eta Probintzia Batzordeko Idazkaritza Nagusi bat. Jarduera adar hauei buruzko eginkizunak zituzten: informazio, turismo eta herri hezkuntzaren arloko planak eta programak onartzea, Batzorde Nagusiari helarazteko; Tokiko Batzordeetako kideen izendapenak onartzea, idazkari nagusiak proposatuta; horren ondotik Batzorde Nagusiari helaraziko zitzaion aurrekontua onartzea; funtsen ekarpena onartzea, bai eta funts nahikoak zituzten proiektuak onartzea ere.

Batzorde Nagusia hurrengo urteetan berregituratu zen (1482/1966 Dekretua, ekainaren 16koa, Informazio, Turismo eta Herri Hezkuntzako Batzorde Nagusia —JCITE— berrantolatzeari buruzkoa; 1966ko uztailaren 14ko Agindua, Informazio, Turismo eta Herri Hezkuntzako Batzorde Nagusiaren idazkariordetza ataletan egituratzen duena eta haren eskumenak definitzen dituen; 3149/1970 Dekretua, urriaren 8koa, Herri Informazio, Turismo eta Hezkuntzako Batzorde Nagusia berrantolatzen duena; eta 1975eko apirilaren 8ko Agindua, Herri Informazio, Turismo eta Hezkuntzako Batzorde Nagusiaren barne-egitura ezartzen duena).

Probintzia Batzordearen jarduera osoari dagokionez, teleklubei buruzko dokumentazioa baino ez da gordetzen.

Abuztuaren 18ko 2284/1972 Dekretuak, Ikuskizunen Zuzendaritza Nagusia sortzen eta Herri Kulturaren eta Ikuskizunen izena aldatzen zuenak, honela zioen 2. artikuluan: zuzendaritza horri dagozkio, besteak beste, Ministerioari hauen gainean dagozkion eginkizunak: teleklubak, kultur

aretoak, ateneoak eta argitalgintza, bai eta liburu politikarekin, argitalpen unitarioekin, kultur kanpainen sustapenarekin eta abarrekin lotutako guztia ere.

1965. urtetik aitzina Nafarroan ireki ziren teleklubak Telekluben Sare Nazionalaren parte ziren, eta, gainerako probintzietan bezala, estatutu batzuei eta xedapen orokor aplikagarri batzuei jarraitzen zieten.

Haien arabera, teleklubak "lankidetzak ireki eta boluntarioko gizarte-etxeak ziren, eta helburu hauek betetzeko sortu ziren: kideen prestakuntza pertsonala, zeuden gizartearen garapen komunitarioa eta bakoitzaren jardueraren xede zen giza nukleoaren aurrerapen profesional, sozial eta ekonomikoa sustatzeko".

Helburu nagusi hauek zituzten, besteak beste: aisialdia era duinean erabiltzea [...], jendearen hobekuntza intelektuala, estetikoa, morala, kirol arlokoa eta soziala lortzeko; afiliatuen arteko elkarbizitza loturak areagotzea eta estutzea; haien gaitasun kulturala areagotzea telebistaz emandako programen informazioen eta ezagutzen bidez —horren ondotik gaitasun kritikoa eta irizpide pertsonala lantzeko eta garatzeko eztabaidez osatutako programak—.

Halaber, telebistako ikuskizunen inguruan, hezkuntza eta kultur jarduerak antolatzen zituzten, hala nola liburuen irakurketa komentatuak, dokumentalen eta diapositiben proiektzioa, diskoen entzunaldia, hitzaldiak, txangoak, etab.

Telebista orokortzean, desagertu egin ziren.

Nahiz eta CITE Informazio eta Turismo Ministerioaren mende zegoen, funts independente gisa utzi da; izan ere, telekluben kudeaketa, sustapena eta garapena zuzenean hari atxikitako Telekluben Sare Nazionalaren mende zegoen.

Funtsaren antolamendua:

029.01 INFORMAZIO BALIABIDEEN KONTROLA

029.01.01 Erregistroak

029.02 KULTURAREN ZABALKUNDEA

029.02.01 Telekluben kudeaketa

Sarrera baldintzak:

Ebaluazio Batzordeak dokumentazioa eskuratzeko epea ezartzen ez duen bitartean, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearen 20. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.